


David Moore errege ezkontzaren itzalean



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Liverpool (Erresuma Batua), 1981eko uztailearen 28a. David Moore 23 urteko gaztea Toxteth auzoko kaleetan zebilen, lagunekin geratuta zegoelako. Falkner Square ingurua sutan zegoen eta polizia protestariak sakabanatzen saiatzen ari zen. Baina inor gutxi zegoen Toxtetheko liskarrei begira.

Gau hartan, handik 250 kilometrora bestelako suak piztu ziren Londresko zeruan. Biharamunean Karlos Galesko printzea eta Diana Spencer ezkonduko ziren eta, ospakizunen artean, su artifizialen ikuskizuna antolatu zuten. Milioi erdi pertsona inguru bildu ziren Hyde Parken suak ikusteko.

Margaret Thatcherren kabinetearentzat distrazio bikaina izan zen hura, ezkontzaren distirak zabalik zeuzkan fronteak itzaltzeko balio izan ziolako, tarte batean behintzat. Irlandan IRAko gose grebalarien egoera larria zen. 28an bertan Gerry Adams grebalarien senitartekoekin bildu zen, heriotza gehiago saihesteko ahaleginetan. Thatcherren erantzuna: heriotzen erantzule bakarria IRA bera zen.

Horrez gain, Erresuma Batua industria krisi larrian murgilduta zegoen. Langabezia eta pobrezia datuak bereziki larriak ziren Merseyside eskualdean, Liverpool hirian eta, bereziki, Toxteth auzoan. Ez da harritzekoa uztailearen hasieratik istiluek auzoko kaleak hartu



Liverpooletako Toxteth auzoko liskarrak eta Karlos Galesko printzearen eta Diana Espencerren ezkontza, biak 1981eko uztailean.

izana. Thatcherren erantzuna: polizia-
ren errepresioa.


David Moorek desgaitasun bat zuen; herrena zen. Polizien Land Roverra Falkner Squaren sartu zenean, ez zen ihes egiteko gai izan. Autoak Moore harrapatu eta berehala anbulantzia iritsi zen, baina, iskanbila betean, zaila zen ospitalera iristea. David Sullivan anbulantziako gidariak gerora esan zuenez, “ahalik eta azkarren ospitalera eramaten saiatu ginen, baina ez genuen lortu”. David Moore bidean hil zen.

Biharamunean, 600.000 pertsona baino gehiago bildu zen Londresko

kaleetan ezkontza bertatik bertara jarraitzeko. Telebistaren bidez, mundu osoan, 750 milioi pertsonak ikusi zuen ekitaldia zuzenean.

40 urte eta gero, milioika pertsona dago oraindik Buckinghamera begira. Britainiar errege familiaren gorabeherak kontatzen dituen *The Crown* telesaila azken urteotako arrakastatsuenetakoa da, eta Kristen Stewart aktoreak Oscar saria irabazteko izendapena jaso berri du *Spencer* (Pablo Larrain, 2021) filman Dianaren rola jokatzeagatik. Baina inork ez du David Moore gogoan. ●

LIVERPOOL ECHO / JAYNE FINCHER



Egiptoar umekia eskabetxean

Dama Misteriotsua duela 2.100 urte inguruko emakume haurdun baten momia da, eta harri buruz beste ezer gutxi dakigulako ipini zioten izena. Iragan apirillean deskubritu zuten Varsoviako Momiaren proiektuko ikerlariak barruan fetu bat zegoela, eta lehen aldia da egiptoar momia baten barruan halakorik aurkitu dena. Baina nolatan

kontserbatu da fetua hainbeste denboran? Momifikazio prozesuan, beste organoekin batera ez zioten kendu eta ez zen usteldu. Ikerlarien hitzetan, “ozpinetan ondutako pepinoak bezala” kontserbatu da. Emakumea hiltzean barruan sortu zen inguruko azidoak “eskabetxatu” zuen eta baltsamatzeak lehortu. ●